

ALMA College-k (Michigan, Estatu Batuak) Enpresagintza-MIK bisitatu ditu.

2013/06/07

14 ikasle eta 3 irakaslez osaturiko Alma College-eko talde batek Enpresagintza Fakultatea bisitatu du maiatzaren 10ean. Bisitaren helburu nagusia ikasle hauek Alma College-en jasotzen ari diren programa baten garapena da, Field Study ikasgaiaren barnean zehazki. Mondragon taldeko kooperatibismoa eta bere errealitatea aztertzea da programaren zati bat.

Edward Lawrence irakasleak, Alma College-eko Kanpo Harremanetako Zuzendariak, Mondragon Unibertsitatearen inguruan interes handia erakutsi du; MIKeko ikertzaileekin egoteko aukera ere izan du eta etorkizunean proiektu amankomunetan lan egiteko ere aukerak aztertu dira. Enpresagintza eta Alma College-ek akordio bat sinatuko dute ikasle, irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna bultzatzeko.

Argazki gehiago hurrengo estekan:

<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza/sets/72157633462347158/>

